



ZEZENA ETA MUTILA

Felipe Juaristi

Enrique Morenteren marrazkiak

Desclée De Brouwer



Mutila Pasaiako plazan
azaldu da. Benetako
beltza ematen du, Afrikakoa.
Burutik oinetaraino lehoi
larruz jantzita dago eta
buruan ostruka lumak ditu,
kapelu moduan.



Oinez dabil oinetakorik gabe,
eta eskuinean lantza handi
bat darama, mutila bezain
luzea, mutila bezain beltza.



Plaza jendez gainezka dago.
Eguerdia da, jai egun
nagusiko eguerdia.



Gizon-emakume
asko ageri da.
Neska-mutil asko
ere bai.
Mozorrotuta
daude gehienak.





Batzuk indiarrez, pauma
luma eta guzti. Beste batzuk
txinatarrez, begi oker eta
guzti. Halako eta halako
errusiarrez, beroki lodiekin,
izerdi patsetan. Bero dago
eta.



Afrikako beltzez jantzitakorik
ere bada. Familia bat: aita,
ama, bi alaba eta semea.



Berehala antzematen zaie,
ordea, ikatz hautsez belztu
dituztela aurpegiak eta
jostunak prestatu dizkiela
soinekoak.



Oso dotoreak dira, egin
berriak. Lehoi larruz
jantzitako mutila haien
aurrean gelditu da.



Beltzez mozorrotutako
familia ere begira geratu zaio
lehoi larruz jantzitakoari.
Mutila mutilari hurbildu zaio.

